



**KULTURA, KIROL, GIZARTE ETA/EDO
EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERAK
ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZAK –
2024**

***SUBVENCIONES PARA LA
ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES
CULTURALES, DEPORTIVAS,
PROMOCION DE EUSKERA Y/O
SOCIALES – 2024***

<u>DEIALDIAREN OINARRIAK</u>	<u>BASES DE LA CONVOCATORIA</u>
1.- DEIALDIAREN HELBURUA. Aurrekontuaren mugen barruan, honako jardueren antolaketa laguntzea: kultura, euskararen sustapena, kirola eta/edo gizarte izaerakoak, 2024an, Urkabustaizko udalerriaren eremuan, eta helburu batzuk finkatzea, herritarrei bermatzeko, aukera berdintasuna zainduta, zerbitzu hauetarako sarbidea, udal eskumenei dagozkien zerbitzuak eta jarduerak osatu edo ordezkatzeko. 2.- ONURADUNAK. Diru-laguntza hauen onuradun honakoak izan daitezten: gizarte, kirol edo kultur jarduera duten elkarteak edo taldeak, publikoak eta pribatuak, irabazi asmorik gabeak, eta legearen arabera eratuta eta erregistratuta dauden udalez peko erakundeak, egoitza soziala Urkabustaizko udalerriaren barruan dutenak. Salbuespen izango dira beste udalerritakoak izanda udalerrri honetako ikasleak dituzten ikastetxeetako guraso elkarteak eta dirulaguntza eskatzen dituzten ekintzetan parte hartzen badute. 3.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK. 3.1.-Diruz lagundu ahal izango dira, lehentasunez, Urkabustaizko udalerriaren lurralde-eremuan egiten diren jarduerak, honako esparruen barruan: kultura, aisialdia, euskara eta kirola. Ondorengoek izango dute lehentasuna: - Urkabustaizko udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenak. - Euskararen erabilera bultzatu eta sustatzen duten programak egiten dituztenek. - Herritarren parte hartzea bultzatzen dutenak. - Udalerrriaren sustapena egiten dutenak. - Kulturaren, euskararen eta kirolaren zabalkundea eta sustapena, modu orokorrean edo tokian tokikoa bultzatuz, egiten dutenak.	1.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA. Colaborar dentro de los límites presupuestarios, a la concesión de subvenciones para la organización de actividades culturales, promoción de euskera, deportivas y/o sociales 2024 en el ámbito del Municipio de Urkabustaiz, y definir unos objetivos para garantizar a los y las ciudadanas, en igualdad de condiciones, el acceso a estas prestaciones para desarrollar servicios y actividades que complementen o suplan los atribuidos a la competencia municipal. 2.- ENTIDADES BENEFICIARIAS. Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las asociaciones, agrupaciones culturales, deportivas y/o sociales públicas y privadas, sin ánimo de lucro, y Entidades Locales menores que se encuentren legalmente constituidas/ registradas y que su domicilio social se encuentre en el Municipio de Urkabustaiz, exceptuando el caso de las asociaciones de padres y madres de aquellos centros educativos ubicados en otros Municipios, pero a los que asisten alumnos y alumnas de este Municipio y que tomen parte en las actividades para las que se solicita subvención. 3.- PROGRAMAS SUBVENCIONABLES. 3.1.-Serán objeto de subvención los proyectos o programas cuyas actividades, prioritariamente, se desarrollen en el ámbito territorial de Municipio de Urkabustaiz y referidas a las áreas de cultura, ocio, euskera y deportes, dando prioridad a los programas que: - Promuevan el bienestar social en el Municipio de Urkabustaiz. - Elaboren programas que potencien y favorezcan el uso del euskera. - Potencien la participación de la población. - Promocionen el Municipio. - Integren actividades de difusión y



- Kirol praktikarako eta kulturarako sarbidea errazten duten jarduerak diseinatzeko dituztenek.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko ekintzak eta/edo programak sustatzen dituztenek, eta/edo gutxietsita edo bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak kontuan hartzen dituztenek.
- Bertako tradizioak berreskuratzea sustatzen dutenak.
- Honako jarduerak egiten dituztenek: gazteen aisialdian arriskuen prebentzioa, aisialdiko jarduerak, bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak, ezintasunak dituztenei zuzendutako jarduerak, gazteek gizartearen papera sustatu eta indartzeko helburua duten jarduerak.

3.2.- Entitate bakoitzak LAU programa, gehienez, aurkez ditzake

4.- AURREKONTU-KREDITUA.

Urtero, ekitaldi bakoitzerako lantzen den udal aurrekontu orokorrean, aurrekontu partidak esleituak dira, oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen banaketa partida horien kargu joateko.

Zenbatekoa, egindako eskaeren eta aurrekontu-partidaren horniduraren arabera aztertuko da.

5.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Udalak diruz lagundu ahal izango du programaren kostuaren aurrekontuaren %80, gehienez ere.

Hala ere, Udal honek, programa zehatz batzuetarako, tratamendu berezi bat egin ahal izango du, udalerrarentzat interes berezia badute, eta programaren kostuak ekarritako defizitaren %100a lagundu ahal izango du diruz.

Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste edozein laguntzarekin, beti ere gain-finantzaziorik eragiten ez badute. Hau da, diruz beste erakunde batzuekin batera diruz lagundutako zenbatekoak

promoción de la cultura, euskera y deporte en general y el autóctono en particular.

- Diseñen actividades que faciliten la práctica deportiva y el acceso a la cultura
- Promuevan programas y/o acciones que garanticen la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres y/o que apoyen, garanticen la participación y la incorporación de colectivos desfavorecidos o en riesgo de exclusión.
- Potencien la recuperación de tradiciones locales.
- Prevención de riesgos en el tiempo libre de los jóvenes, actividades recreativas o de ocio, actividades para mejora de la calidad de vida, actividades dirigidas a personas con minusvalías, actividades a fomentar y potenciar el papel de la juventud en la sociedad.

3.2.- Máximo programas a presentar: CUATRO programas por entidad.

4.- CREDITO PRESUPUESTARIO.

Anualmente, en el presupuesto general municipal que se elabore para cada ejercicio, se consignarán las partidas presupuestarias con cargo a las cuales se efectuará el reparto de las subvenciones contempladas en las presentes bases.

La cuantía se estudiará en función de las solicitudes realizadas y de la dotación de la partida presupuestaria.

5.- CUANTÍA DE LAS SUBVENCIONES.

El Ayuntamiento podrá subvencionar hasta un máximo del 80% del presupuesto del costo del programa.

No obstante este Ayuntamiento podrá dar una tramitación especial para determinados programas que sean de especial interés municipal pudiendo alcanzar hasta el 100% del déficit que resulte del coste del programa.

Las subvenciones ahora convocadas serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobre financiación, es decir, sin que el importe total subvencionado en



jardueraren kostu osoa gainditzen ez badu. Diru-laguntzen konkurrentziagatik gain-finantzazioa gertatzen bada, onuradunak Urkabustaizko Udalak emandako zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango du, diruz lagundutako kopuruarekin lotuta ordaindutako zenbatekoarekin proportzioan.

Diru-laguntzen zenbateko osoak ezingo du, edozein kasutan ere, helburu horretarako esleitutako aurrekontu-partiden kopurua gainditu, Urkabustaizko Udaleko aurrekontu orokorrean.

Zenbatekoa, aurkeztutako eskaeren eta aurrekontu partidako horniduraren arabera aztertuko da.

Diru-laguntzaren ordainketa aurrerapen gisa egin ahal izango da, onuradunak aurkeztu behar duen justifikazioaren aurretik, 12. Oinarrian ezarritakoaren arabera, diru-laguntza jarduera garatzeko ezinbestekoa den kasuetan.

6.- ESKAERAK AURKEZTEA.

1.- Urteko programen edo proiektuen eskaerak aurkezteko epea, zazpigarren oinarrian zehaztutako dokumentazioarekin batera, **hilabetekoa izango da deialdia BOTHAN argitaratzen denetik. Epez kanpo aurkeztutako eskariak ez dira aintzakotzat hartzen.**

Izaera puntuala eta/edo ezohikoa duten jarduerak edo programak, aurreikusitako jardueraren hasiera baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko dira. Edozein kasutan ere, urte horretako urriaren 11a baino lehen aurkeztu beharko dira.

2.- Eskaera eta dokumentazioa Udaltzaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erdiaren 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 16.4 artikulua finkatutako beste edozein bide erabil dezakezue.

3.- Diru-laguntza hauetara aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea dakar.

4.- Ezingo dute diru-laguntzarik jaso azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV Tituluan, Diru-laguntzen buruzkoan, adierazitako arau-hausteengatik zigortuak izan direnek.

concurrancia con otras entidades pueda superar el coste total de la actividad. Caso de producirse un supuesto de sobre financiación por concurrancia de subvenciones, el beneficiario tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Urkabustaiz en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.

El cómputo total de las subvenciones no podrá superar en ningún caso la cantidad asignada en las partidas presupuestarias para tales fines, del presupuesto general del Ayuntamiento de Urkabustaiz

La cuantía se estudiará en función de las solicitudes realizadas y de la dotación de la partida presupuestaria.

El pago de la subvención podrá realizarse por adelantado, previamente a la justificación que la beneficiaria tiene la obligación de realizar, en los términos establecidos en la base 12, en caso de constituir la subvención financiación imprescindible para el desarrollo de la actividad.

6.- PRESENTACION DE SOLICITUDES.

1.- El plazo de presentación de solicitudes para programas o proyectos anuales, junto con la documentación solicitada en la base séptima, será **de un mes a contar desde la publicación del extracto de la convocatoria en el BOTHA. Las solicitudes presentadas fuera de plazo, no se tendrán en cuenta.**

Para actividades o programas de carácter puntual y/o extraordinario se presentarán con 1 mes de antelación al inicio de la actividad programada. En cualquier caso, la fecha límite será el 11 de octubre del año en curso.

2.- La entrega de la solicitud y documentación será en el Registro de entrada del Ayuntamiento o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3.- La presentación de solicitudes para optar a estas subvenciones comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en las presentes bases.

4.- No podrán acceder a las subvenciones quienes hayan sido sancionados por las infracciones a que se refiere el Título IV de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre.

**7.- DOKUMENTAZIOA.**

-Eskaera-orri ofiziala eta formularioa (I. eranskina), Udalak eskainiak. Formulario bat bete beharko da proiektu/programako eta/edo denboraldiko.

- GEHIENEZ. 4 (3.2 oinarria ikusi)

-Estatutuen fotokopia, eta Elkarleen eta Erakundeen erregistroan legez eraturta eta izena emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa. Salbuetsita daude aurrez aurkeztu duten erakundeak, denbora-tarte horretan aldaketarik egin ez badute. Udalez peko erakundeak ere salbuetsita daude.

-Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunaren Diruzaintza Orokorrekiko betebeharrak fiskalak eguneratuta daudela ziurtatzen duen agiria; horren orde, betebeharrak fiskalen eta zerga-betebeharren ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen zinpeko aitortpen bat aurkeztu ahal izango da. Ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira, komenigarri ikusten bada (II. Eranskina).

Udalak interesdunei eskatuko die aurkitutako akatsak hamar eguneko epean zuzentzeko, eta adieraziko die, hala egiten ez badute, eskaera bertan behera geratuko dela, beste izapiderik egin gabe.

Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko helburuz, erakunde eskatzaileei adierazten zaie, zerrendatutako dokumentuetan agertu beharreko datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiaren urteroko diru-laguntzak emateko prozeduran bakarrik erabiliko direla.

8.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK.

8.1.- Laguntzen zenbatekoa zehazteko, eskaeran

7.- DOCUMENTACIÓN.

-Solicitud oficial y formulario, facilitados (anexo I) por el Ayuntamiento. Se deberá cumplimentar un formulario por proyecto/ programa y/o temporada.

-MÁXIMO: 4 (Ver base 3.2)

-Fotocopia de los Estatutos y documentación que acredite estar legalmente constituida e inscrita en el correspondiente registro de Asociaciones y Entidades. Se exceptúan aquellas Entidades que ya los presentaron con anterioridad, salvo que hubiera habido alguna modificación y, aquellas que sean entidades locales menores.

-Certificado de estar al corriente en la Seguridad Social y en las obligaciones fiscales en la Tesorería General de Hacienda; en su defecto se presentará una declaración jurada de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales y/o tributarias. Pudiéndose solicitar dichos certificados si así cree conveniente (Anexo II).

Ayuntamiento requerirá a los interesados- interesadas para que en el plazo máximo e improrrogable de diez días subsanen las anomalías advertidas, indicándole que, si no lo hiciese, se le tendrá por desistida su solicitud, sin más trámites.

A los efectos del cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se advierte a las entidades solicitantes que los datos aportados como parte de la documentación relacionada serán utilizados exclusivamente en el procedimiento de concesión de subvención anual cuya convocatoria regulan las presentes bases.

8.- CRITERIOS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES.

8.1.- Para la fijación de la cuantía de las ayudas, se valorarán los datos consignados en



adierazitako datuen balorazioa egingo da (eskaera-inprimakia eta formularioa). 8.2.- Diru-laguntzak banatzeko eta zenbatekoa zehazteko balorazio-irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gainditu gabe, ondorengoak dira: 8.2.1.- KULTUR, KIROL, EDO GIZARTE IZAERAKO EDO EUSKARA SUSTATZEKO PROGRAMAK/PROIEKTUAK. IRIZPIDEAK * Programan parte hartzea aurreikusten den PERTSONA KOPURUAREN ARABERA. *Jarduerak iraungo duen EGUN KOPURUAREN arabera, edo udalerrian garatutako jardunaldi kopuruaren arabera (ikastaroak, txapelketak, hitzaldiak, ikuskizunak, etab. * AUTOFINANTZAZIOA. Proiektua gauzatzeko bideragarritasuna, aurreikusitako finantzazioaren arabera. * EUSKARA: euskararen sustapena. * GASTU KONPUTAGARRIEN AURREKONTUAREN arabera, jarduera garatzeko bakoitzak duen beharrezko baloratuko da. Gastu konputagarritzat joko dira, puntu-kopurua kalkulatzeko helburu soilarekin, diruz lagundutako jarduerari egotzi ahal direnak, ondoren adierazten diren kontzeptuen eta gehieneko ehuneko konputagarrien barruan:	la solicitud (impreso de solicitud y formulario). 8.2.- Los criterios de valoración para el señalamiento de las subvenciones y fijación de su cuantía, sin perjuicio de los límites establecidos en la base cuarta, serán los siguientes: 8.2.1.- CRITERIOS PARA PROGRAMAS/ PROYECTOS DE CARÁCTER CULTURAL, SOCIAL, PROMOCIÓN EUSKERA Y DEPORTE * POR EL NÚMERO DE PERSONAS participantes en el programa, en previsión. * POR EL NÚMERO DE DÍAS de duración de la actividad o número de jornadas desarrollados en el Municipio (cursillos, campeonatos, charlas, actuaciones, etc. * AUTOFINANCIACION. La viabilidad de realización del Proyecto en base a la financiación prevista. * EUSKERA: promoción del euskera. * POR EL PRESUPUESTO DE GASTOS COMPUTABLES, se valorará la necesidad de cada uno, para el desarrollo de la actividad. Se entienden por gastos computables, a los solos efectos de cálculo de puntos, los imputables a la actividad subvencionada referidos a los siguientes conceptos y por los porcentajes máximos computables que se señalan:
---	---



Begiraleak – hizlariak – gidak- epaileak

Personal necesario- ponentes- guías- árbitros- arbitras..... 100%

Materiala/espazioak alokatzea, jarduera egin eta mantentzeko guztiz beharrezkoa denean

Alquiler de material/espacios, totalmente necesarios para el desarrollo de la actividad y *mantenimiento de los*
mismos..... 100%

Ikuskizunak/emanaldiak: antzerkia, bertsolaritza, kirola, ipuin kontalariak, dantza, musika etab.

Actuaciones/ exhibiciones teatrales, bertsos, deportivas, cuentacuentos, danza, música,
etc..... 100%

Argitalpenak (oro har herritarren interesekotzat jotzen direnak)

Publicaciones(consideradas de interés general para la población)..... 100%

Jarduera egiteko berariazko aseguruak

Seguro específico para la actividad..... 100%

Anbulantziak, posta-gastuak, baimenen tasak... (abalak ezik)

Ambulancias, correos, tasas por permisos,... (no avals)..... 100%

Sarrerak: museoak, parke naturalak, interpretazio zentroak, kultur-bisitak eta antzerakoak

Entradas a museos, parques naturales, centros de interpretación, visitas culturales y
similares..... 100%

Material suntsigarria (jarduera garatzeko oinarritzkoa den materiala)

Material fungible (material básico para el desarrollo de la actividad)..... 75%

Dietak, trofeoak – sariak, erakundearen mantenimendu eta funtzionamendu gastuak, autobusak, garraioaren alokairua

Dietas, avituallamientos, trofeos- premios, gastos generales de mantenimiento y funcionamiento de la Entidad,
autobuses , alquiler transporte 50%

Lunch-ak, kartelak, eskuorriak, jarduerak, material inbentariagarria

Lunch, cartelería, programas, publicidad, material inventariable..... 25%

✘ Ez dira gastu konputagarritzat joko puntuazioaren eta justifikazioaren baremoaren arabera laguntzaren kalkulua egiteko, baina bai jardueraren gastu totalaren kontaketa egiteko, honakoekin lotutakoak:

- Jatorduak, oro har
 - Erakundearen barne-gastuak (dietak, soldadak...)
 - Ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorriak
 - Ostatuak, irteera turistikoak edo parekoak egiten direnean.
- Eta faktura bidez zuriu ezin diren gastu guztiak (ikus justifikazioa egiteko azalpena.)

✘ No se consideran gastos computables a efectos del cálculo de la ayuda según el baremo de puntuación ni de justificación, aunque si a efectos del cómputo de los gastos totales de la actividad, los referidos a:

- Comidas en general
 - Gastos internos de la entidad (dietas, sueldos ..)
 - Desplazamientos en medios particulares
 - Hospedaje, cuando se trate de salidas turísticas o similares.
- Y aquellos gastos que no se puedan justificar con facturas (ver modo de justificación.)



9.- ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA. Diru-laguntzen azterketa, eta, kasu bakoitzean, emateko edo ez emateko erabakia hartzea, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren egingo da. 9.1.- Instrukziorako eta ebazteko eskumena duen organoa.- Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoa Kultura ataleko presidentzia da. Ebazteko eskumena duen organoa Gobernuko batzarra da. 9.2.- Azterketa eta ebazpena.- Bideratzailearen jardueren artean, honakoak egongo dira: - Ebazteko beharrezkoa diren txosten guztiak eskatzea. Beste batzuen artean, saileko teknikariarena, eta Idazkari-kontu hartzailearena. - Eskaeren ebaluazioa, oinarri hauetan definitzen diren irizpideen, helburuen edo lehenetsien arabera eginga. Eskaerak ebaluatu ondoren, espediente bidaliko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikuluan dioena betez, oinarri arautzaileak ezarri dituen organo kolegiatuari. Honek, eskaerei buruzko txostena egingo du. Espediente eta organo kolegiatuaren txostena ikusirik, organo bideratzaileak behin-behineko ebazpen-proposamen bat egingo du, behar bezala arrazoitua, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epe bat zabaldua. Ebazpen-proposamenak, gutxienez, honakoak izan beharko ditu: diruz lagungarri den proiektua, zenbatekoa, jasotako puntuak eta justifikatzeko epea. Behin betiko ebazpenaren proposamena organo kolegiatuak egingo du, eta Gobernuko batzarrak, arrazoitutako ebazpenaren bidez behin betiko onarpena emango dio diru-laguntzaren banaketari. Honek, gutxienez, diru-laguntza ematen zaion eskatzailearen izena edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko du, eta baita atzera	9.- ESTUDIO Y RESOLUCIÓN DE SOLICITUDES. El estudio y, en su caso, concesión o denegación de las subvenciones, se realizará una vez terminado el plazo de presentación de solicitudes. 9.1.- Órgano competente para la instrucción y resolución. El órgano competente para la instrucción del expediente será la presidencia del área de Cultura. El órgano competente para resolver será la Junta de Gobierno 9.2.- Estudio y resolución. Las actividades del instructor comprenderán las siguientes actividades: - Petición de cuántos informes se estimen necesarios para resolver, entre otros, el del personal técnico del área así como de la Secretaría Interventora. - Evaluación de las solicitudes o peticiones, efectuada conforme a los criterios, fines o prioridades de valoración, que se definen en estas bases. Una vez evaluadas las solicitudes, se remitirá al expediente al órgano colegiado que en cumplimiento del art. 22.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, haya establecido las bases reguladoras, que emitirá informe sobre las solicitudes. A la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a los interesados, con un plazo de diez días para presentar alegaciones. La propuesta de resolución deberá contener como mínimo: proyecto subvencionable, cuantía, puntos obtenidos y plazo de justificación. La propuesta de resolución definitiva, será emitida por el órgano colegiado, y Junta de Gobierno mediante resolución motivada que aprobará definitivamente la concesión de subvención. Ésta deberá contener como mínimo el nombre del solicitante o relación de solicitantes a los que se concede la subvención y la
--	--



botatzen diren eskaeren zerrenda ere.

Era berean, ebazpenean interesdunei jakinaraziko zaie bere aurka jarri ahal diren errekurtsioak zein diren. Zein organo judizialen aurrean aurkeztu beharko lituzketen ere jakinaraziko da, eta baita aurkezteko epea ere, interesdunek komenigarri irizten duten beste edozein ere jarri ahal izango dutelarik.

Ebazteko gehienezko epea lau hilabetekoa (eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita). Epe horretan ebazpenik eta jakinarazpenik ez badago, eskaerak atzera botako dira. Ebazteko gehienezko epea lau hilabetekoa

Ebazpenak bukaera emango dio administrazio-bideari, eta bere kontra administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Zuzenean inpugnatzen ez bada, hautazko errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organo berberaren aurrean, hilabete bateko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan, ezarritakoarekin bat eginez.

10.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.

Diru-laguntzaren ordainketa honela ebatziko da:

1.- Urteroko izaera duten programetan, diru-laguntzaren %75era arteko aurrerapena ordaintzeko aukera ezartzen da.

2.- Ezohiko programetarako eta jarduera puntualetarako, diru-laguntza aurrez justifikazioa eta jardueraren memoria aurkeztu ondoren ordainduko da, jarduera amaitu ondoren, eta diru-laguntza emateko ebazpenean adierazitako gehienezko epearen barruan.

3.- Diru-laguntzaren ordainketa aurreratu ahal izango da, aurrez onuradunak

desestimación del resto de solicitudes

Igualmente, en la resolución se pondrán de manifiesto a las entidades interesadas, los recursos que contra la misma proceda, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

El plazo máximo para resolver será de cuatro meses contados desde que finalice el plazo para la presentación de solicitudes y la falta de resolución y notificación dentro de este plazo producirá efectos desestimatorios.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados Centrales de lo Contencioso – Administrativo conforme a lo previsto en el artículo 9.c) de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación.

En el caso de no impugnarla directamente, podrá ser recurrida potestativamente ante el mismo órgano que la dicto en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

10.- ABONO DE LA SUBVENCIÓN.

El abono de la subvención se podrá resolver:

1.- En programas de carácter anual, se establece la posibilidad de realizar pagos anticipados de hasta un 75% de la subvención.

2.- Para programas extraordinarios y actividades puntuales el abono de la subvención se realizará previa justificación y memoria de la actividad realizada a partir de la finalización de la actividad y en el plazo máximo marcado en la resolución de concesión de subvención.

3.- El pago de la subvención podrá realizarse por adelantado, previamente a la justificación que la beneficiaria tiene la obligación



egiteko betebeharra duen justifikazioa egin ondoren, 12. Oinarrian ezarritako baldintzen arabera, jarduera garatzeko diru-laguntza jasotzea ezinbestekoa den kasuetan.

11.- JUSTIFIKATZEKO EPEA.

Diru-laguntzen onuradun diren erakundeek hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, dagokien ebazpenean adierazten den data baino lehen, eta, edozein kasutan ere, ondorengo epeetan:

- **Kultura, kirol eta gizarte izaerako jarduerak eta/edo euskara sustatzekoak: 2024ko abenduaren 30a baino lehen**

Hala ere, diru-laguntzaren ebazpenean justifikazioa-memoria aurkezteko beste epe bat agertu ahal izango da.

Eskabidean puntuatutako balorazio-irizpideak osorik edo zati batean betetzen ez badira, lortutako puntuazioa eta diru-laguntzaren ehunekoa aldatu ahal izango dira.

Aurkeztutako gastuak ordaindu direla egiaztatzen ez bada edo justifikazioa epearen barruan aurkeztu ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da, betiere justifikatuta geratzen bada.

12- ERAKUNDE ONURADUNEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

- 1) Diruz lagundutako proiektuaren edo programaren **memoria-likidazioa (III.eranskina)**, ondorengo datuak dituen: egindako jarduerak, denboralizazioa (datak, ordutegia...), parte hartzaileak (sexuaren arabera banatuta, helburuak eta balorazioa).
- 2) **Zinpeko aitorpena**, beste administrazio, organismo edo erakunde publikoren batetik diru-laguntza edo laguntzarik jaso den edo ez adierazten duena. Eta Jarduerak eragindako **sarrera eta gastu guztien balantzea. (IV. Eranskina)** Sarreraren zerrendan edozein kontzepturengatik jasotako sarrerak zehaztu beharko dira: bazkideen kuotak, diru-laguntza

de realizar, en los términos establecidos en la base 12, en caso de constituir la subvención financiación imprescindible para el desarrollo de la actividad

11.- PLAZO PARA LA JUSTIFICACIÓN.

Las Entidades beneficiarias de las subvenciones deberán presentar la documentación indicada en la siguiente base, antes de la fecha que se señale en la oportuna resolución de concesión y en todo caso en los siguientes plazos:

- **Actividades culturales, deportivas, promoción de euskera y/o sociales: antes del 30 de diciembre de 2024.**

No obstante, en la resolución de subvención podrá figurar otra fecha de presentación de dicha memoria-justificación.

El incumplimiento total o parcial de los criterios de valoración puntuados en la solicitud podrán dar lugar a la modificación de la puntuación obtenida y del porcentaje de la subvención.

En el supuesto de no acreditar el pago de los gastos presentados justificativos de la subvención obtenida o de no presentar en plazo la justificación, el abono se realizará en concepto de anticipo a justificar, siempre y cuando quede justificado.

12- DOCUMENTACION A APORTAR POR LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS.

- 1) **Memoria- Liquidación** por proyecto o programa subvencionado (**anexo III**), donde se indicarán los siguientes datos: objetivos y su evaluación, medios humanos y materiales utilizados, lugar de desarrollo, temporalización, datos de participación desagregados por sexo y valoración
- 2) **Declaración jurada** de haber o no recibido otras subvenciones Y **Balance de todos los ingresos y gastos** originados por la actividad. (**Anexo IV**) En la relación de ingresos habrá de incluir los obtenidos por cualquier concepto, tanto de cuotas de socios-as, ayudas económicas, públicas o privadas, como cualquier otra percepción económica (tales como venta



publiko edo pribatuak, edo bestelako edozein sarrera ekonomiko (material salmenta, zozketak...).

- 3) Fakturak eta ordainagiria/banku-kontuaren mugimenduen laburpena/tiketa,** eta ziurtatutako kopurua honakoaren parekoa izan behar da, gutxienez: emandako diru-laguntza, gehi erakundeak egindako ekarpena (gutxienez %20, edo dagokion ebazpenean adierazten dena). Gastuaren zenbatekoa 300,00 € baino handiagoa bada, ordainketa egin dela ziurtatu beharko da. Diru-laguntza honetara aurkeztutako fakturak ezingo dira ondorengoei dagozkienak izan: jatorduak oro har, erakundearen barne-gastuak (dietak, soldatak...), ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorriak, ostatu-gastuak irteera turistiko eta antzekoen kasuan, eta hasierako eskabidean aurreikusi gabeko edozein jarduera, aurretiaz ez bazaio Udalari jakinarazi.

Ez dira justifikazio gisa onartuko ondorengo datuak argi eta garbi erakusten ez dituzten ordainagiri, faktura ticket etab.-ak:

- Jaulkitzailearen izena edo izen soziala, eta NAN edo IFZ.
 - Jasotzailearen izen soziala eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundearen berbera izan behar du)
 - Gastuaren helburua
 - Data
 - BEZ: ezarritako zerga mota(k)
- Gastuen ziurtagiriek formula-rioko kontzeptuen (A, B, C, D...) arabera joan beharko dute ordenatuta eta multzokatuta.

Gutxienekoa justifikatzen ez bada (diru-laguntza + %20 edo ebazpenean adierazitako kopurua); diru-laguntza proportzioan gutxituko da.

- 4) Diruz lagundutako jarduera iragartzeko erabilitako programen, kartelen... aleak. Karteletan udalaren armarrria edo/ eta logoa agertu**

material, sorteos.....).

